

HAU ZOUHAIR DA

Orain IKUSEZINA da

Ez du eskubideak erabiltzeko aukerarik. Baina hori ez da beti horrela izan.

NOLA IRITSI ZEN ZOUHAIR EGOERA HONETARA?

HONA HEMEN ZOUHAIRREN ISTORIOA

- ✓ Zouhair Marokotik iritsi zen, **han, bertan lan-kontratu bat lortu ondoren.**
- ✓ **Ingeniari agronomoa da**, baina bere titulua Espainian homologatu ezin zuenez, zaila zen bere prestakuntzarekin bat zetorren lana aurkitzea.
- ✓ **Kantabriako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi batean egiten zuen lan, eta bizi ere han bizi zen.**
- ✓ **Inork egin nahi ez zituen lanak egiten zituen:** behiei jaten eman, garbitu, belarra moztu, konponketa-lanak egitea, pintatzea...
- ✓ Arazorik gabe berritu zuen **lehen egoitza-baimena, bi urterako.**

✗ **Berritzeko garaia iritsi zenean, nagusia luzamendutan ibiltzen zen. Hitzordua lortu zuen atzeritarrentzako bulegoan: UKO egin zioten bere eskabideari.**

✗ Bere harridurarako, **bi urte zeramatzan kotizatu gabe.**


✗ **Zouhair irregulartasun-egoeran geratu zen.**

Baliozko beste lan bat bilatzen aritu zen, “errotze

✗ **sozialagatik” ezohiko eskaera aurkezteko.**

Poliziak, berak ez zeukan agiri jakin bat eskatu zion.

Hortaz, bere kanporatze-espeditentea hasi zuten.



ZOUHAIR
31 URTE, MAROKO

Kalera irteteari utzi dio, **segurtasun-gabezia eta beldur handia** baititu. **Zouhair beldur da Atzeritarren Atxikitze-Zentro batera eramango ote duten.**

ZOUHAIR DEPRESIO SAKON BATEAN MURGILDU DA

Bere egoerak okerrera egin du **belauneko lesio** baten ondorioz. **Paperik ez zuenez, ez du osasun-laguntza jasotzeko eskubiderik**, eta ez du ebakuntza egiteko aukerarik.

“

Atzeritarrari ez diozu ez tratatu txarrik eragingo, ezta zapalduko, zuek ere etorkin izan baitzinateen Egipton.”

Ir 22,20.

ZOUHAIR

ZURE AUZOKIDEA DA

Ikusarazi al dezakegu?

Honek izan behar al du bere eskubideak lortzeko zabaldu edota ixten duen atea?

ETA GURE KOMUNITATEAN EGINDAKO ERROAK IZANGO BALIRA... ZOUHAIR IKUSARAZTEKO BERMEA?